

Autoebaluazioa III-C ATALA (20-21 Ikasgaiak)

1.- Intsulinaren eragin desiragaitzen artean ez dago:

- a) Lipodistrofiak
- b) Edema
- c) Alergiak
- d) Hipogluzemia
- e) Anemia

2.- Osteoporosiaren tratamendu farmakologikoari dagokionez, zein da erabilgarria?:

- a) Hidrokortisona
- b) Difosfonatoak
- c) K bitamina
- d) Azido folikoa
- e) Androgenoak

3.- Zein ez da androgenoaren eragin kaltegarria?:

- a) Hipotentsioa
- b) Antzutasuna
- c) Emakumeengan birilizazioa
- d) Ginekomastia umeengan
- e) Nerabeengan, eskeleto heltze goiztiarra

4.- Kaltzitoninaren erabilera ondoko kasu bakar batean indikatuta dago::

- a) D bitaminaren hipobitaminosia
- b) Hiperparatiroidismoak eragindako hiperkaltzemia
- c) Belauneko artrosia
- d) Kaltzio gabezia
- e) Xurgapen txarrak eragindako D bitaminaren gabezia

5.- Ondoko kasu hauetatik ez da erabilgarria farmako estrogenikoen administrazioa?:

- a) Hipoobarismoa ordezko tratamenduan
- b) Antisorgailuzko tratamenduan
- c) Dismenorrearen tratamenduan
- d) Androgenoen menpeko neoplasien tratamenduan
- e) Estrogenoen menpeko neoplasien tratamenduan